

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Lehen esan dugun bezala telebista kate bat sortzea erabaki dugu. Gaur egun, kateak edozeinek ikusten ditu eskura daudelako. Mota askotako kateak daude eta gu bereziki kirol munduan murgildu gara, uste dugu kate honek arrakasta izango duela jende askori kirola gustatzen baitzaio.

Bezero taldeak segmentu ezberdinetan banatuko ditugu: kirolariak, kirola telebistan ikustea gustuko dutenak, telebista egunero ikusten dutenentzako eta adinakoentzako bideratua izango da.

## **Kirolariak:**

Gehienbat beraientzako bideratua izango da. Hauek gehien aprobetxatu eta gozatuko dutenak izango dira, beren idoloak kate honetan agertuko baitira. Horrez gain, kirolari askok kate honetan ateratzeko aukera izango dute, hainbat elkarrizketen bitartez, beren bizitzari buruz...

## **Kirola telebistan ikustea gustuko dutenak:**

Hauek agian ez dute kirolik praktikatzen baina telebistan kirola ikustea asko gustatzen zaie. Nahiago dute bere lagunekin kaleran egon zerbait hartzen kirola egin beharrean.

Etxean bere familiarekin daudenean telebista pizten duten kirola jartzen dute eta horrela familia guztiak ikusten du.

Familiak orduan kirola ikusiz umeak kirola egitera bultzatzen ditu.



### **Telebista egunero ikusten dutenentzako:**

Gure enpresa handitzeko beharrezkoak direnak izango dira. Nahiz eta kirolariak ez izan, aukera izango dute hainbat motatako kirolak ikusteko. Gerta daiteke, agian norbaiti ez zaiola gustatzen kirolen bat, baina



hainbat kirol desberdin egongo direnez, aukera izango dute bere gustuko kirola ikusteko nahiz eta beste ordu batean izan. Kirol guztiak iraupen berdina izango dutenez, honen alde on bat da, ez direla telebistaren aurrean ordu asko egongo kirol guztiak ez direlako pertsona baten gustukoak izango.

### **Adinakoentzako bideratua izango da:**

Astean hiru alditan, saio bat egingo da adinakoentzako bideratua. Bertan, pertsona batek hainbat ariketa egingo ditu, etxean zaharrek egin ahal izateko edo jarraitzeko. Adibidez, yoga, aerobic, taichi, pilates... Horrela, gure enpresak aukera ematen die zaharrei etxetik atera gabe kirola egiteko.



Zergatik kirol hauek? Gehienek kirol kardiobaskularrak direlako eta hauek, bizitzaren itxaropena handitzen dute eta gaixotasunak saihesten laguntzen dutelako. Beraz, bizitza osasuntsuago bat eramango dute gure kateari esker.